

Ipuinak eta piruletak opari Liburuaren Egunean Tolosan

TOLOSA. DV.

1616ko apirilaren 23an hil ziren William Shakespeare eta Miguel de Cervantes idazleak. Romeo eta Julietaren egilea bata, On Kixoterena, bestea. Hori dela eta, atzoko egunez, Nazioarteko Liburuaren Eguna ospatzen da munduko hainbat herrialdetan, eta ospakizun honen harira, Tolosako Haur Liburutegian Miriam Mendoza ipuin kontalariaren ipuinak entzun ahal izan zituzten 3-6 urte bitarteko haurrek.

Leporaino bete zen liburutegiko Ipuin Txokoa. Kanpoan jolasean ibiltzeko ere eguraldi paregabea zen atzo arratsaldean, baina inork ez zituen Miriamen ipuinak galdu nahi izan.

Atzo gainera, kriseilu berriarekin etorri zen Miriam Tolosara, txikien zoramenerako. Izan ere, Miriamek berak azaldu zuen bezala, ipuinek argitasuna eta goxotasuna behar dituzte, eta horretarako, kriseilua piztu behar da.

Kriseilua piztea izaten da Miriam Mendozaren ipuin kontaketa saioetan egin beharreko lehenengo gauza. Honen ostean, umeei asmatu beharreko asmakizuna etorri ohi da, eta atzokoan ere ez zen falta izan. Itsas karakola izan zen atzo asmatu beharreko objektua.

Eta hasierako bi pauso hauek burututakoan, ipuinak kontatzeari ekin zion Miriam, ilargi potola-potola baten ipuinarekin hasiz. Saioa amaitutakoan, umeei kontatutako ipuinen liburu-gida banatu zien Haur Liburutegiak guraso guztiei, etxean euren seme-alabei nahi dutenean kontatu ahal izateko.

Piruletak

Hainbat lekutan ohitura da Nazioarteko Liburuaren Egunean liburuarekin batera beste objektuen bat oparitzeko, esaterako, Katalunian larrosak. Bada, Tolosan piruletak eman zitzaizkien Aranburu Liburutegiko eta Haur Liburutegiko bazkideei, liburuarekin batera.